ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko otsailaren 27a, asteazkena • 25 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

2019ko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren ordainketa

2019ko martxoaren 6tik maiatzaren 6ra arteko egun baliodunetan (biak barne) prest egongo dira, borondatezko epean ordaintzeko, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergari dagozkion 2019ko ordainagiriak.

Zerga hori ordaindu behar dutenek bulego orduetan egin ahal izango dute ordainketa, udaleko diruzaintzan, aipatutako epe horretan. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabank, Euskadiko Kutxa eta Caixan dituen kontuetakoren batean. Halaber, zergadunei gogorarazten zaie banku entitate edo aurrezki kutxetan helbideratuta egin ahal izango dutela ordainketa. Aurreko urteetatik ordainketa helbideratuta dutenek, helbideratzeko kontua mantentzen badute, ez dute inolako izapiderik egin beharko, udala arduratuko baita ordainketa izapidetzeaz.

Aipatutako epea amaitzean, automatikoki abiatuko da betearazte aldia, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutakoaren arabera, eta dagozkion errekargu eta berandutze interesak kobratuko dira.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Araia, 2019ko otsailaren 18a

Alkatea
CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.02.27 06:32:50 Z